

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
35n. ZENBAKIA
DAGONILLA
IRAILLA
- 1980 -**



EUZKADI

KONPOSTELA'RA

BIDEAN

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

KONPOSTELA'RA BIDEAN

BIDE-KURUTZEA

Euskalerria erri bakartia dala sarritan entzun dogu, baiña ez dot uste, gauzea zeatz-zeatz begitu ezkerori egia danik.

Euskaldunak mundu zabalean lan audia egin dabe al izan daben neurrian euren jakintza zabaltze. Gogoratu Colon'en aldietatik gaur arte Ego-Ameriketara zabaldu diran euskal-abizen ugariak, edo gaur egun mundu zabalean lanean diarduen mixiolari langilleak.

Eta Euskalerria bera bide-kurutze bat dogu, emendik igaroten dira Europa'tik egoalderantz datozen asko ta asko. Orrexegaitik, euskaldunak errez artu doguz beste kultura batzutako jakingaiak eta errez zabaldu beste erri batzutura geure kultura zarraren aberastasun eta edertasunak.

Ez gara ba, erri guztiz bakartia.

GALIZIA'RA

Erdi-Aro guztian izan dabe Europa'tarrak Galizia'ra ibiltari joateko gurari bizia, eta, jakiña, asko Euskalerritik zear joaten ziran. Euskalerritik zear, baiña ez Irun'eko bidetik, Orreaga'kotik baiño. Gai au naikoa ondo agertzen eban oraintsura arte antzezten zan Obanos'ko Eskutukiak, naizta euskal giroa pizka bat aitzuta agertu.

Irun-aldetik be joaten ziran banaka batzuk. Gogoratu, esaterako, Emeryc Picaud ospetsua. Gotzain ibiltari onek euskaldunak arerio lez artzen ditu eta euren izkuntzari buruz be ba-diñoz kintenkeri batzuk, baiña beronek itzi euskun gure izteirik zarrena, txikia baiña jakingarria.

Eta Konpostela'n bertan be autor-entzule euskaldun bat egoten ei zan aldi areitan.

SENIDE?

Galiziarrek eta euskaldunak alkarregaz uertzeko, izkuntzaz eta biotzez, erreztasun berezia daukagu. Galiziarrek errez ikasten euskerea eta euskaldunak be errez artzen dogu galiziarrena. Eta alkarren arteko adiskidetasuna be errez sortzen jaku.

Zergaitik ete da ori? Ez ete da bitzuok antxiña Zeltakaz izan genduzen zer-ikusi ta artu-emonakaitik?

Dana dala, aste pozgarri bat igaro dogu uda onetan galiziarraz. Biotz oneko jentea benetan Geu lez lotsatiak eta geu lez biotz beroak, baiña lotsatiak izan arren gu baiño askoz berbatsuagoak eta gu baiño askoz bildurtiagoak. Gauza ederra benetan beste enda batzutako jentea ezagutzea, baiña ez itxuraz eta azalez, barru-barrutik baiño.

BURU-JABETZA

Galiziarrek be, geure antzera, buru-jabetzaren bila dabiltz eta askotariko eritxiak agiri dira bertan: Batzuk España'gaz, beste batzuk askatasun osoaz, beste batzuk buru-jabetzarako araudia onartuz... Ementxe lez baiña bizitasun gitxiagoz. Esaterako talde baten euren izkuntza erabiltea, politika jokia dala errez sinisten dabe.

Bear dau Galizia'k bere aurrepenerako eta gizabide zuzenerako indarra ta laguntza: Baserritarrek txiro agiri dira, euren beitu bakarrakaz, eta abelazkun'tzarako alkargoak be asi dira, baiña urri dagoz. Galizia'ko bide zabalak geienak txarrak dira. Industriak be itxura baten ez dauko indar aundirik. Izadia bera da guztiz eder eta zoragarria, baiña aurrerapen-maillan ez da pozbide aundirik agiri.

Ez da errez ulertzeko gauzea Francozanakzergaitik ain gitxi begiratueutsonebere lurraldeari, baiña ez gara arritu Ferrol del Caudillo izena izan dan lekuan ;Caudillo ori kenduta ikusteaz.

Euskalerria Konpostela'ra bidean, Galizia'gaz artuemonetan eta anaitasunean, munduko erriakaz ondo alkartuta eta bere nortasuna galdu barik, orra or mundoko biztanleak billatzen dogun bide egokia.

UMEAK ETA ZINEA

Goiria

ZINEA

Ago guztietan dabil umea. Izan be asko esan gura dau umeak gizarte-bizitzan. Elizak be ardura aundia artzen dau umearen ezkuntzan.

Arerioak be eurekana eroan gura dabe umea. Arrisku aundiak eta asko daukoz gaur umeak. Bi bear ba'da garrantzitsuenak: zinea ta irakurgaiak.

Biek indar aundia dabe umeagan. Umeentzat pelikula bereziak egin bear dirala; eurentzat atsegungarrienak diranak eta egokieneak diranak; zinea garbitu egin bear dala ta abar esan da.

Ezer egin da?

Oso gitxi. Buru-auste aundiak sortzen dautsez gura-soai umeak zinera bialtzeak.

Geienetan pelikulak ez dira ain egokiak umeentzat eta egokiak diranean be beste ainbat eragozpen agertzen dira.

ARETOA

Ikusle batzuen egoera ta nasaitasunak sarritan FILM bera baiño kaltegarriagoak dira.

Au dala-ta elitzake naiko umeentzat pelikula egokiak egitea. Toki bereziak, eurentzat bakarrik diran tokiak be bear litzakez eta au eziñean, aparteko orduak, ordu bereziak jarri eurentzat.

Olan eginda beste arrisku bat kenduko litzake: FILM-bitartean sartzen diran iragarkiak. Zenbat arrisku, gaizpide, nasaitasun eta billoiztasun iragarki oneitan!

EUSKERAZ

Eta beste ainbeste esan daiteke umeen iraguskaiaz be. Geroago ta geiago bear dira, baiña nork egin bai al'da? Gatza, piper-miña euki bear dabe umeai atsegin izan da-keezan.

Aitatutakoen ganetik ba-da beste eragozpen bat be. Pelikula danak erderaz emoten iakez gure euskeldun umeai. Eukiko ete doguz nozbait euskerazko pelikulak? Bear aiña bai?

IKASLE

Umeen bizitza-zati bat aitatu dogu. Gizarte-zatia. Umeak partsona danak bezala arimadun dira. Gorputza ezeze arima be ba-dau umeak. Ar-emona izan bear dau Jaungoikoa-gaz gogodun dan aldetik.

Umeak dana oartzten dau: ikusten dauana, entzuten dauana. Norbaitek berba dagianean be adi-adi begiratu oi dau. Berez-berez asten da Jaungoikoa ba-dala oartzten. Nagusiak itz dagitsonean, otoitz dagianean beti begiraten dautso. Gauzak sakon irratzen dira beragan eta sendotu dagie bataioan artutako sinismena.

IZKERIA

Azalean bakarrik bizi oi dau umeak sendi-bizitza. Ezer ulertu barik; alan be barruan daroa noski.

Bardin erlijjiño-beroa. Umeai irakatsi bear iakezan otoitzak samurrak eta errezak eta motz-laburrak izan bear dabe. Itz-berbak be gitxien erabiltzen diranak, Jainkoa gauza santua, aundia dala ikusi dagien.

Izkerak garrantzi aundia dau. Izkera ereza. Onela obeto ulertuko ditu Jaungoikoaren aundi ta santu-izatea, bere onbidea, bere almena ta abar.

ITZALA

Itzok izan leitekez lenengo otoitza: Aitaren eta Se-mearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amagaz batera. Amak umearen eskua berarenagaz artuta zelan egin irakatsiz.

¡Jesus Jauna, ene Jainko, Maria, Aingeruak sarri esan bear iakoz. Gero zer esan nai daben azaldu. Bardin zertarako diran... laguntza... onespenna... eskatzeko... Itzak ondo aukeratu ta ondo esan.

Itzala... begirunea... itzalak garrantzi aundia dau otoitzan naiz sutik naiz belauniko egin. Otoitzan geldi egoten irakatsi bear iako umeari. Otoitza laburra bedi. Sarri egin...

OTOITZERA

Irudiak be garrantzi aundia dabe umean. Sakon irar-tzen iako umeari irudia. Irudiak egizkoak izan daitezela ez barregarriak.

Munduko zoragarriak Jainko-ezagutzera eroango dabe umea. Egiteak ikusirik eta ezaguturik obeto ezagutzen eta maitatzen da Egillea.

Umeak ikusten dauaun dana ezagutu gura dau; abereak, lorak, eltxoak, piztiak, eta abar.

Danak lilluratzen dau: txoriak, urak, txakurrak, iñurriak euren Egille Jainkoa ba-dala esan eta azalduta erre-zago urreratuko da Beragana.

Obeto ezagutuko ta mautatuko dau. Mundu ta Jainko-misteriaoaren aurrean dago ta bere biotza laster samurtuko da ta otoitz egiteko gertatuko.

BIARKO

Umeentzat sinimena uste biurtzen da. Oso-osoan eskintzen dautso bere burua Jainkoari. Ez dau ulertuko lenngotan batez be Jaungoikoari diñotsona. Gero bai.

Lan au danena da baiña batez be gurasoena, etxekoena. Gaurko umeak biarko gizon-emakume dira, biarko gizarte-zuzendariak.

GURE IZKERA

GOGORKERI BIZIA

Gogora ezazu, irakurle, Munoz Seka antzerkilariaren esakizun ua: ¡Cosas veredes, D. Pero! ¿Zer ote dugu ikusi bear?

Izan ere gauza arrigarrik ari dira gure artean gertatzen. Bai politikaren barrutian, bai euskararen barrutian.

AGINTARITZAN

Politikarenean, eriotza egarri duten indarkeri zalez beterik daukagu Euzkadi. Orain arte, iGizonaren Eskubi-deak aoan artuaz, diktaduraren aurka eta gizakumea zigortzearen aurka marruka ibilli diran oiularirik aundienak, orain diktadurarik gogorrena ezarri nai digute, «Iraltza-Zerga», edo «Inipuesto Revolucionario» dalakoaren bidez, gizakumeen askatasuna zanpatzen, arudira, eta okerragoa dana, berak bezela pentsatzen ez duan guztia tiroz iltzen. Ta ori dana, Euzkadiren eta askatasunaren izenean!

i«Cosas veredes, D. Pero»!

GORRI NAIZ ZURI

Fatxismuaren aurka deadarka zintzurak autsi dituzte... ita berauek baiño fatxista aundigorik ez da. Bai Errusi'n bai Txile'n Bai Txekoslobaki'n bai Arjentina'n bai Kanboia'n mundu guztiak ba daki gaur Fatximu Gorria eta Fatximu Zuria zearo berdiñak dirala. Euzkadi'ko fatxista auen fatxismua ere Alemi'ko ua bezelakoa da: Gaiztoa, okerra, erai-ilea. Emengo au... okerragoa ez ba'da!

Bildurgarria izan zan Hitler. Baña gure fatxista auen pentsaera euki balu buruan, milla bider bildurgarriagoa izango zan.

Gure fayxista auek berriz Hitler'ek izan zituan indarra, almena, eta izkilluak (armak), beren eskuetan ba'leuzkate, beste era batera pentsatzen dugun guztiok aspaldi illak giñan munduan. Ez judutarrak (judioak) bakarrik, ez; aurka pentsatzen duan guztia baizik.

Ta ala ta guztiz, erkalaren (demokraziaren) alde ari dirala borrokan, diote.

i«Cosas veredes D. Pero»!

EUSKERA-ALORREAN

Orrelako zerbait gertatzen da Euskerarekin ere. Orain arte atzeritarrak izan dira gure izkera kendu nai izan digutenak, atzerriko izkuntza bat ipintzeko.

Orain euskaldunak dira gure izkera (Bizkaiera Bizkai'n, Gupuzkera Gipuzkoa'n), kendu nai digutenak, iinungoa ez dan izkuntza bat ipintzeko! i«El batua» dalako mamurrakeri ori ez bait da iñungoa!

¡BATUA NUN?

Barkatu eidazu, irakurle, albo-ibilketa bat. Ez da denbora asko Potugal'eko sendagille adiskide batek galdetu zidala:

i,Zer itzegiten da Bizkai'n?

iBizkaiera!

§Eta Gipuzkoa'n?

¡Gipuzkoera!

¿Eta Laburdi'n?

¡Laburdiera!

¡Laburdiera!

¡Y Ldonde se habla el batua ese a que se ha referido Vd. hace poco? (Ta aiztintxe aipatu duzun «el batua» ori ¿nun mintzatzen da?)

En ninguna parte (Iñun ez).

¡Hombre! ¡En alguna parte se hablara! (iGizona! iNubait ere itzegingo da!).

Y eso, Ldonde esta?, galdetu zidan.

Ez dakit, izan zan nere erantzuna.

iBegira —jarraitu zuan—, ni Angola'ko gudan sendagille egona naiz, eta ordurako Ego-Afrika'ko Jaurlaritzak aipatzen zituan Bantustanak. ¡Ya hablaba de Bantustanes!

¡Ba, antxe, Afrika'ko Batustan oien artean egongo da nunbait «el batuaren» Batustan ori ere, azken-esan nion.

EUSKERA

IÑON EZ

¡El batua ez da iñongoa, iñon itzegiten ez dalako! Ez da beintzat Euskalerrikoa, emen itzegiten ez da-ta. Ez da Euskera ere, Euskalerrian itzegiten ez dan izkuntza Euskera ez dalako.

Eta iñungoa ez dan izkera ori, indarrez ezarri nai digute euskaldunoi. Eta, indarrez guri berbaketa zorigabe ori ipintzearren, gure betiko Euskera erail nai digute!

.Cosas veredes D. Pero!

Ta dana, indarraren bidez!, ortarako politikaren indarra erabilliaz! Beste biderik ez bait da!

EUSKALKI-ZALE

Beste biderik ez da: 1.º euskaldunek beren euskera maite dutelako. Giputxek gipuzkera, Laburditarrek laburdiera... (Ain zuzen Iparraldeko euskaldunek astoaren gaueko eztulari baño jaramon gutxiago egin diote iel batuari!).

Baña batez ere zuberotarrak eta bizkaitarrak izan dira ¡el batua'ren aurka asarrerik aundienarekin jeiki diranak. Ez da arritzekoa. Bizkai'ko eta Zubero'ko euskeratik «el batua»'k ttantta bat ere ez bait du.

Ala ere ba-da bizkaitar bat edo beste bere euskerari uko-eginda «el batua»'ren alde dagona.

i Cosas veredes D. Pero!

BARRIRO IKASTEN?

Beste biderik ez da: 2n. euskaldunak «el batua» mordollo ori ulertzen ez dutelako. Urte bete baño askoz geiago ez da izango Eusko Alderdi Jeltzaleko buruzagirik ospetsuenetako batek, Bilbo'n, Alderdiko parlamentarien aurrean auxe esan zidala:

¡Mira que ha sido desgracia! Teniendo una modalidad central del Euskera que entendíamos todos, iponerse a inventar otra cosa que si queremos entenderla tenemos que ponernos a estudiarla todos, incluso yo!: ¡Tamala izan duk ori! Danok ulertzen genuan Euskera bat euki (erdiko Euskera), ta beste era bat sortzen asi. Guztiok, baita nik ere, IKASTEN asi bearko dugun era berri ori ulertu nai ba'dugu beintzat. Ta ori zion Jauna, txiki-txikitatik mintzatzzen da Euskeraz. Ederto gañera!

¡Cosas veredes D. Pero!

ULERTU

Ba-zan Bilbo'ko billera artan parlamentari ez zan Alderdiko gizon izentsu bat ere.

iNik ez dut Hatxerekin datorren idazkirik irakurtzen —zion—, ta ez dut irakurtzen ez gorrotokeritxo batek eraginda, ez; ulertzen ez dedalako baizik. (No por antipatias, sino porque no lo entiendo.)

Ta nik Euskera ba-dakit. Ez nerea bakarrik. Gipuzkera ere ondo ulertzen dut nik!

Bai orixe. Ederto daki Jaun arek Euskera, Bizkaikoa batez ere.

IDAZLE ON BATEK

Baña ori ez da ezer, irakurri ezazu arretaz orain esango dizudana, azkoz ere gaitzagoa da-ta.

Joan dan asteen, Euskalerriko uritxo batean giñan Manu Oñatibia'tarra Zarauzko albaiterua eta ni, gaur Euskerak duan idazlerik onenarekin izketan. Onena esan dut, nik ala dala uste dedalako.

Aren kidekorik aipatzekotan, onenetakoa bezela, Kerexeta bizkaitarra aipatuko nuke.

Ba, auxe entzun genuan gaurko idazlerik onenetako aren ezpañetatik:

Nik euskera ezagutzen dut. Nik Euskalerriko Euskera guztiak aztertu ditut; eta ezgutzen eta ulertzen ditut.

iTa «el batua»'rik ezin dut ulertu! Bai asieran, bai amaieran, zailtasun izugarriak ditu neretzat «el batua»'k!

Ta, iñork ulertzen ez duan Euskera ori ezarri nai digute guztioi legearen indarrez! iTa askatasunaren izenean!

iDemokraziaren izen santua aipatuaz!

¡Cosas veredes D. Pero!

EUSKERAREN ERIOTZA

Galdera bat irakurle:

Bizkaiera ta Gipuzkoera ilda, Luste al duzu iñork ulertzen ez duan mordollokeri ori norbaitek ikasiko dula?

¿Uste al duzu gure baserritarrak, gure arrantzaleak, gere etxekojaun eta etxekoandreak izkera berri bat ikasten asiko dirala?

iTa Euskera salbatzeko asmatu omen zuten izketa trakets ori!!!

¡Cosas veredes D. Pero!

iItxartu bizkaitarrak i«EI batua» Euskeraren eriotza da!!!

Latiegi'tar Bixente

ANTXIETA'TAR JOSE

(ZORIONDUN BARRIA)

Oraintsu - garillak 22 - Erroma'n zoriondunen maillara jasoia izan da Antxieta'tar Joxe. Egia esan, Antxieta Joxe jaio ez zan Euskalerrian jaio, baiña berak beti esaten eban: «Ni euskalduna naiz». Bere aita Antxieta eta Zelaian'dar Joan, Azpeitiarra, Urrestilla auzokoa zalako, naiz eta Joxe Kanarias'en jaio.

Joxe'k bere ikasketak Portugal'eko Koinbra ikastetxe nagusian egin zituan, eta gazterik - 17 urte - Jesusen Lagundian izena emon eban, laster Brasil'en indioen artean lan egiteko asmotan.

BRASIL'EN

Osasun makalekoa izan arren - bizkar-azurra okertuta zeukan - arrigarriak dira Joxe'k Ego-Ameriketan egindako ibilaldiak: Arjentina, Uruguay eta batez be Brasil'go lurralde zabaletan, beti oiñez, eta askotan bakarrik eta bide barik.

Aita Antxieta'ren bizitza berba gitxitan adierazoteko, mixiolari, osagille, maixu eta bertsolari izan zala, esan bear dogu... baita be mirarigillea ez txikia, orduko lekuko edo testigui siñistu bear badeutsegu, beintzat.

INDIO-ARTEAN

Indioak eskolatzeko euren izkuntzan - «tupieraz» - gramatika, iztegi eta liburuak egin zituan...

Gaur Sao Paulo deritxan uri andian, ikstetxe bat egin eban, eta orduko erri koxkorra, gaurko 5 milloi biztanledun uri andi eta industriz betea da. Onegatik eta beste lan askogatik, gaurko brasildarrek Aita Antixeta bertako gizonik andienetakotzat dauke, eta garillarren 9-an ango eskola guztietan maixuek euskaldun onen bizitza erakutsi bearra dauke.

Indioen eta portugaldarren artean bakeak egiteko zenbat aldiz Antxietak bere bizitza arrisku gorrian ipiñi eban...!!

Azkenean bere biotz-on eta maitaunez millaka indio bateatu zituan...! Xabier'ko Frantzisko'ren antzera bere besoak neke-neke egiteraiño.

BERTSOLARI

Ainbeste lan eta nekeren artean ez eban Joxe'k bere umore ona galtzen, eta portugaldarrekin bakeak egiteko indioen eskuetan baituta edo preso egon zanean, bere astialdiak bertsoak egiten emoten ebazan. Gaur bost liburu ezagutzen ditugu latinez, portugesez eta tipueraz egindako bertsoz beteak. Paperaren faltan itsasondoko ondartzan makil-puntaz idazten zituan, gero buruz ikasi, eta papere-ra aal ebanean aldatzeko.

LANAK

Brasil'go jesuiten buru izentatu eben, eta dakigunez, millatik gora dira Antxietak Brasil'en eragitateko eleizak, gaixo-etxeak, eta lan-etxeak. Europa'tik landareak eta abereak eroan zituan ango indioei lurra lantzen eta abereak zaintzen erakusteko.

Orduko testigui sinistu ezkerro eundaka mirari eta gauza arrigarriak egin zituan antxieta Aitak bere bizitza santuan: gaixoak osatu, gauza ezkutuak agertu, pekatarriak eta sinisbakoak Jaungoikoaren argira eta maitasunera ekarri...

AZKEN-URTEAK

Antxieta Joxe bere azken urteetan Reritigva deritxan erri txikira baztertu zan, Jaungoikoaren aurrera joateko bere arima prestatzera, eta an be bertsoak egiten jarritu eban, Jaungoikoa aurrez-aurre ikusi arte. 64 urtekin il zan, guztiak santutzat zeukatelarik, 1,597 gn. urtean. 1,736 urtean Agurgarrien maillara jasoia izan zan, eta joan dan garillarren 22-an zoriondunen mailara jaso eban Joan Paulo Aita Santuak.

Goikoetxea'tar Iñaki

EBARISTO

TXURRUKA

Bilboko Abra'ko aoburuan, oroitarri andi ta eder bat ageri da.

Gaztelu antzeko torre luze batek burutzen dau.

Eta aren oiñetan gizon bat ezarrita, itsasoari begira ameslari. Ebaristo Txurruka'ren irudia da.

Gizandi bat ageri da aren eskumaldean, arritzar bateri bultza ta bultza; Txurruka'ren antzirudia da.

Beste gizandi bat dago etzunda arritzarraren besteko aldean, bere oin indartsuaz arriari eutsi naiean; itsasoaren antzirudia da.

Ezin dautso baiña ezer egin arriaren eragiñari.

Txurrura'k Abra'ko kai andi ta ederra egin ebaneko oroitarri dira irudi eder orreek. Txurruka'k garaitu eban, bai, itsaso asarrearen indarra, bere buru argi ta biotz bizkorraz.

GAZTEZAROA

Txurruka'tar itsasgizon aipatuen ondorengoetakoa zan Ebaristo. Naparroa'ko Izu erritxuan jaio zan, alan bere, 1841-an.

Urte bi ebazala, aren gurasoak Motriku beren jaioterriko etxera eroan eben; eta an emon ebazan bere ume-urteak.

Injenieru zan 22 urtetako; bide, urbide ta kaien injenieru. Eta laster asi zan bere arloko lan anditan.

Murcia ta Valencia'ko lan batzuk egin ondoren, Ameriketako Puerto Rico'ra joan zan 26 urtekoa.

Sei urte egin ebazan an, eta ango ibaien ur-joerak garastarako zuzendu ondoren, iru zubi eder eraiki ebazan areen gaifietan, eta uriburuko baia anditu ta jantzi.

BILBOKO KAIA

Bilbon egoan 1877-an, Cuba ta U.S.A. zear ango kai eta beste lanketa izugarriak ikusi ta aztertu ondoren.

Oso egoera txarrean egoan Bilbo'ko kaia: aren aoko urak metro bat bakarra euken ur-beerakoetan; bira biurria eukan ibaiak Elorrieta'ko inguruan; ibaiak ekarritako arri koskor lerro luzeak ageri ziran Olabeaga ondoan, eta ezin ontzi txikienak be andik ibilli...

Bere gain artu eban txurruka'k Bilbo'ko kai orren oker guztiak zuzentzeko lan ikaragarria.

Eta bai zuzendu bere. Amaituta egoan lan guztia, andik amar urtetara. Len alako lau ontzi zebiltzen Bilbo'ko kaiean atzera ta aurrera.

Asko merkatu ziran itsas-lorrak bere. Sekulako abia-da artu eben inguruko meatz-lantegiak, eta laster zabaldu bertoko burdin-barrak Europa guztian zear.

BILBAO'KO ABRA

Bizkortu zituan kai barriztuaren obari ugariak Bilbotar eragiñak, eta aurreko itsasadar edo Abraren aurrean beste kai bat eraiketzea otu jaken. Otu ta asmau. Lengo Txurruka bera izango dogu onen egille bere.

Lengokoa baiño lan gogor eta neketsuagoa izan zan oringoko au. Gogor jotzen dabe itsasaldiak Santurtzi ta Algortako bitartean.

Bein baiño geiagotan apurtu eutsoezan Txurrukar asitako kai-musturreko arriak.

Eta era ta bide barriak asmauturik, sei urtetan amaitu eban lan ikaragarria.

Andik iru urtetara, eginda egozan bere inguruko nasa ta kai inguruak; eta nasai sartu-urten eikezan, andik aurrera, munduko itsasontzi andienak bere.

Itsaslari trebe ta jakintsu izan zala bere aurreko Damian Txurruka, ez da bapere makalagoa izan gure Ebaristo Txurruka.

Zor itzela dautso Bilbo'ko erriak eta Euskalerrri osoak.

PORTUGALETEN EZPATA-DANTZEA

AGERKETEA

Gorputz-egunean, neska-mutikoen lenengo jaunartzea zala-ta, Portugalete'ko Andra Mari eleiza nagusiaren ondoan, Ana deunaren ikastetxeko eleiz txikian ezpata-dantzearen agerketea izan zan.

Eleiz txiki onetara zapatu arrastegi guztietan Deustu'-ko pasiotar bat elduten da mezea euskeraz esateko.

Erri aretan abertzale zintzo dan Uribarri'tar Juan Mari'k aurretiaz pasiotar areri esan eutson:

Abade ta adiskide! Mutiko-neskatxuen lenengo jaunartze-ostean ezpata-dantza polit bat egin gura dogu.

Ondo dago —erantzun eutson pasiotarrak— baiña kontuz gero, ez daitela izan orain-arte eleizetan egiten ez dana. Bestelan Gotzaintzatik matrakea sortuko jaku.

Ez bildurto, ez. Gipuzkoa'ko eleizetan oituraz egiten da.

Olan ba'da, ba-damotzuet baimena.

* * *



ZELANGOA DAN

ZER'en irakurleak, jakiña, ezpata-dantza ori zelango dan jakin nai izango dabe. Eta izenpetzen dauan albistariak pozik beteko dau labur-laburki euren guraria.

Erri-kondairak diñoskunez, ezpata-dantzea Brokel dantzea baizen nagusi da. Iztueta ta Etxebarria'k diñoenez, antxiñatik Gipuzkoa'ko errietan ziarduen errege ta giza-ospetsuen omenez, euren ikustaldietan batez be, egiten zan eta gaur egun Erregeen Erregea, Gorputz-eguneko gure jauna goresteko ta gurtzeko be erabilten da.

Ezpata-dantzearen esangurea auxe da: Atzerriko arerioak aberri mugara urreratzen ziranean, Gipuzkoa'ko kementsu ta odol-garbi ziran leiñargidunak batzen ziran gudarako, eskuetan ezpata luzeak zituela, alai ta pozez dantzatan, txistu-tanbolin soiñuz, arerioa aberritik jaurti arte burrukan ekiteko gertu.

* * *

EGITARAUAK

Onelan egiten ei zan ezpatadantzea: Talde aundi bat, bein euneraño aldu ei zan, soiñeko apaingarriz jantzita, eskuetan ezpata luze bana eroiela, alkartzen ziran. Talde au lauka erreskadetan jartzen zan, eskoi-aldean eroien ezpatea aurrekoari emenez, onek ezkerreko eskuaz artzen ebala, eta aurreko lerroko laurak buruzagiari emoten eutsoela.

Taldeak ezpatak buru-gaiñera jasota zubiak egiten zitan, atzeko lauakadak polito gurutzatuz, aurre-aldera igaroten ziran dantzarako. Zubi orreik aldakuntza euken eleizara edo udaletxera sartzean egiten zanean: Kurutzean txortaturik, lurpebide lez eginda, bertatik zear leiñargidunak igaro zeitezen.

Ezpatak eroaten ebezanak, ezpatearen esku-tokian zapi zuri bat eukiten eben, berantz, dantzariaren ikubillerantz.

Ezpata-dantza au Gorputz-egunean lautan egiten zan: Asieran, eleiz-biran, bezperen aurrean, eta onein azkeanean.

PORTUGALETE'N

Portugalete'ko eleiz txiki onetan be iru zati oneik egin ziran, meza-ostean. Gipuzkoarren ezpatadantza oneragilearen erakusketa au biotz dardaraz, pozez beterik eta gogotsu ikusi genduan.

Ikusleatariko batek, abadea kalera urten zanean esan eutson:

—Zu be altaran geratu ziñan eta poztasunez begirazen ginduzuzan ezpatadantza jainkotierra ikusiz.

Ezpatadantza eder eta bikain au amaitu zanean, abesti der batzuk abestu ziran eta gero altare-inguruan egozan sme jaunartu barriai dei egin eutseen eta ezpataz egiñiko <urutzean txortaturiko zubi-makotik zear igaro ziran.

* * *



«ELAI-ALAI»

Benetan gauza pozgarria izan zan ikusleentzat eta batez be ume arein gurasoentzat umetxuak aingeruzko aurrepegi eta pozez onelan ikustea!

«Elai-Alai»ko dantzariak antxiñako ezpatadantza gipuzkoarra ederto dantzatu *euskuen*. Txistulariak be apaingarri egokiz jantzita eta neska abeslariak abots leundu ta zoliz laguntzen eutseela.

Zorionak guztioi!

LETONA'K

DERIO'KO KASTAROA

(Amar urte)

"Agur Jaunak" gogotsu abestuz asigenduan Derio ko Seminarioan, uztailaren amazzpian, jakintzazko ekiñaldi gogoangarria.

Udako Euskal Ikastaroak amar urtean egin dauan lana aurkezteko izan zan ekiñaldi ori, eta guztiz egokiro bete eban bere egitekoa.

Asteko, jaunak aurrean genduzala "Agur Jaunak" abestea, bere lekuan egoan. Samingarri izaten da abesti au bear ez dan eraz erabiltea, esaterako illeta batzutan joan danak bere agurra egiteko lez, azkenean abesten danean: Ez da tokia, ez da eguna eta ez da ordua abesti orrentzat. Baiña batzar baten, aurrean dagozanak eta erria alkar agurtzeko egiña da eta or dauka bere esangura jatorra.

BERTSOLARI-LANA

Bertsolariak aurkezle izan ziran eta ederto egin eben euren lan berezi au. Arintasuna ta poza emon emon eutsoezan ekiñaldi guztiari.

Ajuria ta Enbeita bertsolari gazteak ziran lan ori ain egokiro egin ebenak. Pozez itxaroten genduan euren azkenbardiñaren osotzea urrengo izlaria nor izango zan jakiteko.

KARMELO ETXENAGUSIA

Ikastaro onen sortzaille ta betiko irakasle dan Karmelo'k egin eban itz lenengo: labur, argi ta garbi, euskera errez eta erritarra erabilliz.

Maikoen aurkezpena egin euskun Karmelo'k: Jaun Mari Gotzaiña, Etxe-

nike Jaurlaritzako Eziketa-sailleko arduraduna, Barandiaran abade ikertzaille ospetsua, Amorrortu Bizkai ko Aldundiaren ordezkari alduna, Satrustegi Euskaltzaindi'ko idazkari ta ekintza onetarako ordezkaria, Zumalabe Eusko-Ikaskuntza Taldearen zuzendari ta Ordezko Manterola'ta Ander ikaslararen zuzendaria eta Azpuru Labayru'ko zuzendaria ta Ordezkaria. An izan zan, baita, Izagirre Aldundiko Eziketa-saillean arduradun dana.


Beste itzaldi guztien antzera, Karmelo'rena labur-laburra ta egokia izan zan.

LONTZO ZUGAZAGA

Lontzo Zugazaga'k egin eban urrengo berbaldi laburra. Ikastaroaren jokatibidea, irakasbidea.

Ezin ukatu Ikastaro onek asieratik artu eban jokabidea egokia danik: Dakigun euskeratik asi eta maillaka-maillaka ez dakiguna ikastera eroan. Izan be, euskerea gaizkatu nai ba dogu, ez dago beste biderik izkuntza darabilleenai indarra, laguntza, kemena ta poztasuna emotea baiño.

Eta emen gogoratu bear doguz beste berbaldi batzutan esandako gauza bi: Euskaldun barriak oso gogoko izan bear doguz, baiña txikitan amagandik euskerea ikasi dabenak dira izkuntza onen alde lan egiteko errezen eta ondoen gertatu daitekezenak. Eta beste au: Ikasleak geroago ta gazteagoak datorkuz eta euren euskerea geroago ta erdel-kutsu geiagokoa ta txirotuagooa da. Orrek zer-pentsau emon bear dauku.



JOSE MARI IRAZOLA

Irazola'k lan sakon eta ederrak egin ditu ikastaro onetan, batez be aditzari buruz egin dituan azterpenak eta arlo orretan emon dituan irakastaldi atsegiñak.

Bere itzaldi labur eta mamintsuak Ikastaroaren goraberak ederto argitu zituan.



Ikastaroaren sortzaille ta **bultzagi-**llerik onena dogu Ander eta gaur Zuzendari. Beti **iksteko** ta **irakastero**, ba tez be euskal **antropolojiari** buruzko **gaietan**, agertzen da Ander.

Bere **berbaldian** agertu zituan **jakingarriak** **liburuska** baten agertzen dira eta azkenean gogoratuko doguz.

LURDES UNZUETA

Irakasleen ostean, ikasle dan Lurdes **Unzueta**'k egin eban itzaldi laburra eta **jakingarri** asko aitatu ondoren, amaitzeko, euskera-arloan dakian **guztia** **Ikastaroari** zor dautsola esan eban.

PEDRO ETXENIKE

Euskal-Jaurlearitzak be garrantzirik aundiena emon eutson **Ikastaroari** eta, naizta oso **lanpetuta** egon, **Eziketarako "Ministro"**a bera etorri zan.

Garrantzi aundiko itzaldia izan zan berea. "Euzkadi ez da sekula benetako Euskalerrri bezela **osatuko**, baldin euskera galtzen badogu" esan eban, baita.

Euskera da gure aberriaren **jatorrizko** izkuntza.

Euskera da gure erriaren nor-**izatea** erabakitzen duen **oiñarrieta**koa.

Euskera zaigu gure buru-lanerako eta **pentsabiderako** tresna.

JUAN MARI URIARTE GOTZAIÑA

Gure Gotzain laguntzailleak berba egokiz agertu eban, bere etxean **da**goan arduradun lez, Ikastaro oneri **eutson** maitetasuna, bera be irugarren **mallara** arte ikasle izan dan ezker eta Bizkai ko Eleizearen ekintza **bearrez**koa dala aiztu barik.

ERES-EKIÑALDIA

Etxenike jaunaren **berbaldi** ostean, onek euskal **parlamentura** joateko ur-

ten ebanean eta Gotzaiñak itz egin baiño lenago, **eres**-ekiñaldi bitxia entzun genduan. Andra Trebe batek amazortzigarren gizaldian **eres**-egille euskaldunak. **Idatzzako dormiak** jo euskuzan, **klabezin-antzek eres-gailla** gutxi **ezagutuan**. A lde batetik arpa antzeko **otsa**, besterik **pienu-antza be-**bai... eta gure **belerrietarako** oso **atsegiña**, **pianua** baiño zarragoa.

LIBURUSKA

Ikastaroaren jakingarriak, **jakiña**, agotik-**belarrira** artzeko **luzeegiak** ziran eta orregaitik **Labayru Ikastegiak** **liburuska** polit eta egokia eskuratu euskun **ekiñaldiaren** asieran.

Dotore egiña, zeatza, euskera **poz-garrin** idatzia eta ondo **irarria** dogu **liburuska** au. Eta **irudibidez** bere zeatza **sunak** ondo baiño obeto agertzen ditu.

Ataria ta agiria irakurri ondoren, **Ikastaroak** atera dituan **irakasgaien zerrendea** aurkituko dau irakurleak: **multikopiaz** egindako **36 lan** eta **irarkolaren** bidez argitaratuak amaika.

Urrengo, ikas-egitaraua labur-labur.

Ikastaro au zortzi erri-**burutan** eta urte guztian be egiten da eta **jakingarri** au irudi **ederrez** agertzen da.

Ikasleak lenengo urtean (**1970**) **21** izan giñan eta igaz **1978** izan ziran, aurtan beste **600** geiago. Or agertzen dira, irudi egokiz, **lanbideak**, **adifia**, bi zilekua. **Gogoangarria**, ikasleak geroa go ta **gazteagoak** dirala jakitea.

Irakasleak, bi lenengo urtean **29** igaz.

Amaitzeko, ikasketen legezko **balioa**, erakunde laguntzailleen izenak eta gaurko **arduradunenak** agertzen dira. Azkenez ikasle guztien izenak, non bizi diran eta zenbat **ikastarotan** izan diran.

Eta naikoa luze dan idaz-lan au amaitzeko, ezin aitatu barik itzi ekiñaldi onen barruan, sortzaille ta eragille izan zan Mikel **Zarate**'ri jo jakon txaloldi beroa.

OLAZAR tar Martin ek

Irazola'gandik izan daike itxaropena euskereak. **Izkuntza_Eskola**'n, **Derio**'n, **Erdi-mallako** ikastetxeetan, **ugaria** ta **sakona** da berak egiten dauan lana.

ANDER MANTEROLA

Maiburukoen artetik eta irakurri barririk, **nasai**, egin euskun berba gure **Ande**'k.

ZIORTZA-INGURUETAN

URTERO LEZ

Aurreko urteetan lez, San Anton parroko jente apa-lagaz ibillaldi bat egin dogu.

Gure elburua auxe izan da: Uriko kutsu artetik urte-naz, biriak sendotu eta, kristiñau lez, erromes-toki santu bat ikustatu. Orrelan Euskalerra obeto ezagutuko gendualakoan.

Gernika'n gosald genduan, Markiña'n amaiketako, Ondarru'n jan tropea eta Deba'n arratsalde gozatsua itxas-aize bigunagaz biriak garbituz. Ori izan da gure ibilaldi labur eta gozatsua.

Gernika'tik bizkaia'ren biotzean zear milla motatako baso ta zelaiak, baratz antzekoak, errizka zuri-gorriak eta baserri zabalak ikusiz, Bolibar Ameriketako askatzaillearen jatorri-erria agurtuz, Markiña'raiño.

Emen euskal usain ugaria, bakea ta lan ugaria.

Ondarru, beti lez, zoragarri agertu jakun. Orain illebe-te inguru ikusi nituan Dinamarca'ko andra-gizon bi Ondarru'ko kalean, guztiz arrituta, zorabiotuta, iñoela:

—Zer da au? Olakorik ez dogu iñon be ikusi! Kaleak gizon eta andra garratzez beterik eta danak alkar-izketan, barreka, alaitsu. Au bai erri osasuntsua ta zorionekoa. Gure erri-aldeetan ez da olakorik ikusten. Emen alkartasuna agiri da!

Eta olantxe da izan be. Gure itxas-aldeko erriak kresal berezi bat dauke, euskal enda indartsua ta pare bagako sena.

IBILLALDIAREN BIOTZA

Aurtengo gure ibillaldiaren biotza Zenarruza edo Ziortza, abat-kolejiatea ikustea izan genduan.

Ara igon giñan (geienak ez eben leku ori ezagutzen, eta, askok, bere izenik be ez eben iñoz entzun). Antxe daukagu amabigarren gizaldi ingurutik Ziortza'ko Andra Mari. Antxiñetan baseleiz txiki-txikia egoan bertan.

Amalaugarren gizaldian Kalaorra'ko Gotzaiñak Ziortza Abat-eleiz kolejiata biurtu eban. Kanonikuak abata baten menpean eta Andra Maria'ren goratarreak abesten bizi ziran. Antxe egoan, baita, bein eta birritan erre zan gaisotegi bat be.

Abat-eleiza ori entzutetsua izan zan inguru guztian. Ango kanonigu batzuk ortik zearreko eleiz barrutietan Gotzain izatera eldu ziran. Ango abaterik entzutetsuena, Irusta abata izan zan.

Gizaldietan lan egin ondoren, joan dan gizaldian kolejiata ori ezereztua edo kendua izan zan. Or dago orain parroki lez apur bat barriztuta, bere eleizea. Zoragarria gotiku-erako eleizea eta bertako altara-burua.

Irusta abataren il-obi txukun-txukuna eta pizkunde-erako klaustroa, ez aundia baiña bai polita.

Eleizea ta inguruak atondu-bearrean dagoz. Noiz izango ete da?

LEKAIDEAI DEIA

Sarritan esan da eleiza orretara leikaideak datozela: Kartujoak, trapenseak, beneditarrak eta abar, baiña ez dira agiri.

Poz aundia guretzat baletoz len-bait-len, eleiza orreri bizi-tasun barria emotera, geure biotzak berotzeko euren ondora urreratu gaitezkan, batera jauna goratzeko.

Ziortza'ko Andra Maria'ganako maitetasuna indartzen asi da gure artean. Neskato asko dira egunotan Ziortza izen polita artzen dabenak. Izango al da Ziortza, antxiña lez, Bizkai'ko sinistedunen arnas-leku!

ZIORTZA'KO AMARI

*Antxiñetan Zure aulki
ipiñi zenduan*

*Bizkai biotz menditako
tontortxo batean*

*Gure arbaso euskaldunak
pozez zure oiñetan
zeru-bide argitsua
ikustean bertan*

*Oiz-ezik arranoak
zure babesleak,*

*zure argiz eta graziz
zintzo baserriak*

*Euren fede bizi-bizi,
iluntze bagarik,
eldu beite guregana
zure eskutatik.*

*Euskalerrriak baserrian
onoimen aundiak*

*baserriar ama zara
zaindu euskaldunak.*

*Zure izen polit bigun
ostera Bizkai'n
andrazkoak artu dabe
Ziortza deitutan.*

*Zure irudi polit eder
barretxuz aldarar
betor arin guregana
barrea bakean.*

KANTAURI'N

Makallau-billa-ta, Iparrameriketaraño A tlantik Itxas Aundian aspalditik joanak ziran euskaldun arrantzaleak.

Eta lur barrietako (Terranova) makallauk artu ezeze, baleak be arrapatzen ebezan eta aldi atan, esan lei, itxasoaren jabe zirala.

Geroago, eta geien baten zaratatsu, eurakaz topo egin eben inglandarrak, XIV gizaldia asi-barri zala.

A rtuemonak batetik eta itxas-burrukak bestetik euren artean txito ugariak ziran eta orrelan jarraitu eben ia beruen urtetan.

Inglanدارren aburuz, Kantauri ta ingurumarietako itxasoen itxas-lapurketa lenenak euskaldunai zor jakez. Orduko ia aazturik eukezan normandotarrak... eta aurretiko gizaldietan izan ebezan eraso-aldi ta burrukaldi min

Beti errezena iñori errua botatea, jakiña.

* * *

1306 garren urtean, euren arteko itunben labur bat izpetu eben.

Onen luzeera urte bikoa bakarrik zan. Ori ta be, inglandarren erregeak iñoanez, urte biak amaitu baiño len, euskaldunak janari ta salgaiz beteriko iru itxas-ontzi eurengeanatu zituen.

Andik laster 1309'garrenean, egiune barriak itundu ziran. Eta gaur otz, biar bero, orrelan jarraitu eban auziak 1329 garren urtera arte.

Urte onetan inglandarren eta prantzesen arteko guda luzea sortu zan eta euskaldunak be esku artu eben.

A zkenez, Aita Santuaren ordezkariak bitarteko, prantzesak eta inglandarrak pakea ziñatu eben. A ndik gerotxuago, 1399'garrenean, euskaldunak eta inglandarrak Ondarrabi'ko ituna egin eben.

* * *

Gure itxas-ontziak beti inglandarren aurka joaten ziran eta euskal itxastarrak adierazten eben adorea gaitik, inglandarrak «Bikingoekaz» barditzen zituen.

Arazo latz oneri beingoaz amaia emoteko, orduko errege zan III Edorta'k 1350 garren urtean, dagonillaren 10'ean, Canterbury'ko ta York uriburuetako Goi-Gotzaiñai idazki garrantzitsu bat idatzi eutsen. Gotzaiñen bidez eskatzen eutsezan kristiñaiñai otoiñz beroak Jainkoaren asarrea ibitzeko eta euskal Itxas-gizonen aurka joateko.

Oneik inglandar itxas-aldeko kaiak artu ezeze bertan aurkitu oi ziran ur-ontzi txiki ta aundi guztiak asarrerik bizienez itxasperatzen zituen eta inguru guztiak triskatu.


* * *

Gauzak okertu egin ziran eta III Edorta'ren iritxiz euskaldunak Ingalterra osoa edo zati on bat beintzat eurengeanatzeko edo geien baten inglandar lurren salerosketako bide ziurrenari oztopo gogorrenetarikoak ezartzeko prest egozan.

Ori ez zan egia, txantxetan jarraitzeko zera baiño. Erregeak euskaldunen aurkako guda-deia beingo baten edatu eban.

Itxas-gudaketa au odol-gaitz eta erruki gabekoa izan zan. Azkenik Ingalterrak itxas-ontziz eta norkiz uste eben baiño geiago galdu ba'eben be, euren gudontzien ugaritasunari esker, deporaldi txikirako ba'zan be, irabazi eben.

Kondaireari jarraituz, euskal itxas-gizonak 26 gudontzi galantak galdu zituen, baiña burrukea aurrera...



Barriro be, alkar ondo ikusi ez arren, orduko salmenten bide-kurutzetean, beti tril egiten ebenez, beste itunpen bat ziñatu eben Londres'ko torre ospetsuan.

Euskaldunen aldetik Juan Lopez de Salzedo, Kastro Urdiales'koa, Diego Santxez de Luparal Bermeo'tarra eta Martin Perez de Garitano getaritarren ordezkari legez Londres'era joateko izendatuak izan ziran.

Inglanدارren ordezkariak Andres de Oxford, Robert de Erle, Enri Pikard eta Jhon de Wesenhas izan ziran.

Ogei urterako ituna egin eben eta guda-burruketan egindako kalteak alkar ordaintzeko erabagia artu be bai.

Gaiñera euskaldunai baimena emon eutseen bear ziran zergak ordaindu ezkeru, Ingalterra'ko ta Bretaina'ko itxas-inguruetan arrantzua egiteko.


* * *

Ingalterra'k be gaztelerriko ur-ontziren bat arrapau eta eurengeanatzan ba'eben eta ontzi orretan euskaldunen zeren bat-edo idoro, bearturik egozan euskaldunai aurki zer guzti orreik itzultzera.

Ingalterra'ren aldetik euren erregeak ikurraztu eban eta euskaldunak be euren ikurratza ipiñi eben 1.351 garren dagonilleko lenengo egunean. Tokia, Londres'ko torre aipatua.

ARREGI'tar Josu'k

NESKAMEA



Nire izeko Miren, etxetxu baten, itxaso ondoan bizi da. Denbora txarra egin arren ara joaten naz ipuin asko edestuten daustazalako.

Beñola, nire izekoak esan eustan neskame bat euki ebala. Ori ez zan ipuin bat, benetako egi bat baño. Egun baten bear-billa emakune bat nire izekoaren etxera eldu zan. Bere ulea ikatza baño baltzagoa zan, bere begiak orlegiak eta txikiak ziran, ez zan gaztea, berrogei eta bost urtekoa gitxi gora-bera.

Laster gogor-gogor eta ondo bear egin ebanez, neskameak irabazi eban nire izekoaren uste osoa. Miren poz-pozik beragaz egoan oso ondo zer danak egiten ebazalako.

Egun baten nire izekoak urira joatea erabagi eban. Orregaitik neskameari esan eutson berandu elduko zala. Baña bidean lagun batzuekazo topo egin eban eta bere etxea ez eben ezagutu-ta, ara joan ziran. Nire izekoak emakumeari ots egin eutson eta egertu zanean sudurra gorri-gorri euki ebala ikusi eban. Miren'ek itaundu eutson: «Zergaitik daukazu sudurra gorria?». Neskameak erantzun: «Otz daukatelako, edo, sudurra gorria eukitea debekatuta dago?»

Gero nire izekoak, erantzunagaitik arrituta, esan eutson baskaria egiteko, eta emakumea sukaldera joan zan. Maia ipiñita egoan eta baskaldarrak jateko jesarri ziran. Bat-batean neskamea agertu zan abestuten atetik. Ez ebillen zuzen, zabuka egiten baño.

Maira joatean erratillu bategaz, oinpekoagaz topo egin eban eta erratilluan eroan gozo guztia, mai-azpira joan zan danak zikintzen ebazala.

Nire izekoa arri eta zur geratu zan eta gero neskameari esan eutson: «Edan dozu, ezta? Urte onetan kanpoan egon nazan artean ardangelara joan zara. Eta gaur ori egin dozu, uste izan dozunez ni berandu etorriko nintzala. Ziria sartu daustazu».

Neskameak, lurrera begiraturik erantzun eban: «Bakarrik **HIP** edaten dot nozean bein, **HIP**. Emen botellak daukadaz **HIP**, Bost dira **HIP**.

Nire izekoak emakumea kampa bota eban.

ASTRID BARONA

ZUBIKARAI'RI OARRAK

«IZTEGIA» onetan agirikoak iñongo iztegieta jaso bakoak dirala esan nai ete da?
Ba, o

«IZTEGIA»:

Itza eta esanaia:		beste izteguak:	
agaka:	a palos.	P. Mugica: L. M. Mujika:	PALO 1, a palos: egeka hagakada: estacazo, porrazo, garrotazo, macanazo
ainguratoki:	fondeadero	P. Mugica: L. M. Mujika:	FONDEADERO: anguraleku ANCLADERO: ainguratoki ainguraleku: ancladero
Aize oial:	vela:	P. Mugica: L. M. Mujika: «IKAS»: L. Mendizabal:	VELA: aiz-oial haizoial: vela de barco a) aizoyal: vela (pieza de lona para los buques) b) VELA (de lona): aizoyal aizoyalak: velamen del barco
akats	defecto, falta	P. Mugica: «IKAS» X. Kintana: L. M. Mujika: L. Mendizabal:	DEFECTO 2, por imperfeccion, tacha, tara: akats FALTA 4, defecto, imperfeccion, tacha: akats akats: defecto akats: defecto akats: defecto // falta, tacha akats: tacha, defecto, tilde
albateta:	Parrokian alboko atea	P. Mugica:	PORTAL: beste izen askoren artean: ATETA ALDERDI Alboko atea barik, ez ete da alboko ateta? «Albatetako ati» esaten da Ondarroan, oin beintztzat. Eta esan, albate-tatik, eta ez albatetatik. (Prrokiak albate bat baiño geiago izan ebala ere..., emon egiten dau, ez ba?)
amandongillak:	albondiguillas (Azkuek «amandongillak» itz au ezagutzen eban, e!) amaren pelota	P. Mugica: X. Kintana:	ALBONDIGA, albondiguilla: amandogilla almandrongila: albondiga, albondiguilla «Amandongillak» itza oso ezaguna Euskalerra guztian: txikiak; hau da; «ezer ere ez» edo adierazte- ko, edo eta erantzun ziur barik izteko erantzuna lez, edo orrelatsu. «Aman dongillak eta aitten puturruzkillak». Ondarrutarrek, oingotan, ez dabe azertu onik izan...
amure emon:	aflojar amarras. (eta amarrak ez direnak ere).	Iztegi guztiak:	amore emon; amor emon
andrakilleta:	muñeca	P. Mugica	gutziz antzekoak, ainbat...
anka egin:	escapar	P. Mugica X. Kintana: L. M. Mujika:	ESCAPAR 3, -se, evadirse, huir, fugarse: anka egin hanka egin: escapar hanka egin: evadir, pirarse, escapar
apetaldi:	ansia, deseo loco	AZKUE: P. Mugica: X. Kintana:	APETA: capricho, fantasia ANSIA 4, anhelo, deseo vivo, gana: apeta apeta: capricho, gana, fantasia

IZTEGIA

		L. M. Mujika: L. Mendizabal:	apeta: antojo apeta: capricho, antojo, fantasia // ansia, deseo
atarra:	ganas de juerga	AZKUE: L. Mendizabal: P. Mugica:	atarramentu: bulla, ruido, barullo atarramentu: // bulla, ruido, barullo BULLAI, alboroto, barullo, tumulto, zambra, algazara
(Ondarroan: «atarramentu» ere erabiltzen da esanai bardiñez)			
atzaparra:	eskuko beatzak		DEDO; los diez dedos de las manos: atzamar (c) atzapar (c)
bazkaldari:	comensal	P. Mugica: «IKAS»: L. M. Mujika:	COMENSAL: bazkaldar bazkaldar: comensal, invitado (a corner) bazkaldar: convidado a corner, comensal
berandutu:	hacerse tarde (akesolo ez da, ba, bakarra)	P. Mugica: «IKAS»: X. Kintana: L. M. Mujika: L. Mendizabal:	TARDE, hacerse tarde: berandutu berandutu: retardar berandutu: hacerse tarde... berandutu: // hacerse tarde berandutu: retrasarse, dilatar, tardar...
deizale:	señero	P. Mugica: X. Kintana: L. M. Mujika: «IKAS»:	LLAMADOR 1, persona que llama: deitzaille deitzaile: llamador, convocador deitzaile: invocador deitzale:llamador
diamotxu:	diantre	P. Mugica:	DIANTE 2, iquē diantre! = diamotxua!
dsanga:	saltar al agua para nadar	AZKUE: X. Kintana: L. Mendizabal: AZKUE: P. Mugica:	dzanga egin: zambullirse dzanga egin: zambullirse dzanga: onomt. del zambullirse en el agua dzanga: (onomat.): 1." zambullirse en el agua ZAMBULLIR 2, -se, sumergirse; zanga egin.
dsastada:	inyeccion	AZKUE:	Dsast: voz onomatopica que significa introducción violenta. DZASTADA: accion de meter SAST: onomat. de la introducción de un objeto en otro. (Urabillak amari osturiko buruko orratz bategaz sast! sast! odoldu eban ezkerra) sasta, sastada: punzada PUNZADA = ... sastada sastada: punzada sastada: punzada
erlaizea:	viento flojo	P. Mugica:	OLA 1, ...ola producida por el viento: erlax
erramu:	remo	P. Mugica: «IKAS»:	REMO 1, erramu REMO: erramu
erramute:	remada	P. Mugica:	BOGA 4, accion de bogar, de remar: erramueta (Esan: erramuta ona, erramuta exkasa...)
erria:	arriar	P. Mugica: L. M. Mujika:	ARRIAR: ...erria, erriatu ARRIAR: erriatu ERRIA!: ;ARRIA!
erru:	tentaculo	IZTEGI	ERRO itza, jakiña. Ondarrutarren «erru» ori, erro + -a da
esne tela:	nata de leche, o mejor, capa de la leche hervida	GUZTIAK: P. Mugica:	NATA 2, nata o tela de la leche: esne tela (c) (Bota, gatzatza!)

9) Xelebrekeria dateken itz bat: DARDARAKUA:

Bai, Ondarroan, «dardaraku» = «el flan». Baiña, ara!; beno, berbeta maillan eziña da, baiña, ondarrutarren batek, ondarrutarren artean, Ondarroan, ala ondarrutar naiz or idatzita dagon moduan, aozkatuko baleu ondarrutar itz jator balitz lez, a zelako jaialdia ipiñiko leuken!

JAKI NTZA

U.N.E.S.C.O.'n Joan Paul II'ak egin zuan itzaldian esaten zuan «jakintza begiko ninia bezela zaindu bear dala. Polonia`k ere etsai asko izan dituala, alde batetik eta bestetik, baiña bere jakintza begiko ninia bezela zaitu zutela eta etsai askoren artetik atera zala».

Guk ere orrelan asi bearko degu, euskera ta Euzkadi'n diran jakintza guziak sakontzen.

Ba-ditugu notin azkar eta jakintsuak, ba-ditugu batzokiak, gure batzoki oietan asi bear degu, jakintza begi-ninia bezela zaintzen, itzaldiz eta beste asmakizun onak billatzen, aberria lo-zorro onetatik ateratzeko.

Emen lo-zorro ikaragarria sortu zuan fatxismo orrek.

Abertzaletza bere burua daukatenak ere, gure izkuntz berdingabeko au baztertuta, gure gogoaren erailtzaille izan dan erdera ori dabilkite barra-barra.

Noiz esnatuko ete gera?

EZTABAI DAN

Bermio ez da iñoiz izan beste erriak bezelakoa.

Bermio'k berexetasun aundiak ditu, bai bere gogoz, bai bere indarrez, bai bere abertzaletasunez.

Ba-dirudi itsaz-ondoko gatz guziak bereganatu dituala, indar sakona emanaz.

Guda aurretik Bilbo'ko Euzko Gaztedi'ra asaltzen ziranean, «ba-dozue Kafekoletxe' esniagaz?» esaten zuten.

Bidebarrieta'ko amalaugarrena alaitzen zuten beren esaera berdigabeko aiekin.

Gudatean ere bus aiekin egin zituzten «asarriak» nor ez ditu oroitzen?

Nere iritzian, Bermio artu bear degu dan bezelakua.

Ez da berdiña ta alderdi batek guzitakoak bear ditu: batzuek jakintsuak, bestiak indartsuak, bestiak biotz zabalak. Batzuek jakinduria zabaltzen dutenak, bestiak alaitasuna ta biziteko poza. Guziak batuta ez ote litzake aberri obia sortuko?

ONINTZE'k

* * *

BIOTZ ZABALA

Euskalduna asarre-erraza dala sarritan entzun dogu eta kondairara begitu ezkerro olako zerbait errez aurkitu geinke, baiña gaur parkatzen errezak izatera jokatu bear dogu: Guziak onartu anai-biotzez, geure buruari, baragarriak garala ikusten dogunean barre egiten ikasi, inguruko goraberak bizitasun geiagi barik artu...

Ori, gitxienez, anaien arteko goraberai begira orrelan izan-bearrekoa da.

Erri bat daukagu aurrean, egoera larrian, eta gure betiko areriaok auxe dabe naien: Gu geure artean banatuta eta alkar joka ikustea. Ez dagiegun poz ori emon.

Gure inguruan arazoak, erri-arazoak eta gizarte-arazoak beti izan dira ugari, eta izango be bai. Alegindu gaitetzan gauzak zuzentzen, baiña bakea galdu barik: Ba-dakigu nondik gatozen eta nora goazen. Errien bizia gizonena baiño luzeagoa da eta guk lortzen ez doguna, urrengoak lortu al izango dabe. Elburuak argi ikusi ta irakatsi ezkerro, ez da zertan estutu geiegi.

Alkartuta ibilli, alkartuta abestu, alkartuta jan eta edan... eta lagun-arteas asarrea sortzeko bidea politikea ba'da, ez aitatu, bakea beñiñago da.


Erria gara, orain artean bizi gara, aurrerantzean be itxaropena galdu barik ekiteko usteas gagoz... Betor bakea, betor anaitasuna.

Gure eskubideak lortzea asko luzatzen dala? Daroagun abiadan elburua ikusi barik ludi au itzi bearko dogula? Ez artegatu! Urrengoentzat gauzak bide zuzenagoan iztea lortzen ba'dogu, eurak be euren izerdiz lortuko dabe elburua eta azken baten askatasunaren eguzkiak bere argi izpiz argituko dau gure erria.

GAMIZ'ek

ASTIRO

4.a



aprender
temblor
fundicion, calor fuerte
friolero

4 IZKI'koak
confidencia, secreto
hacer
lo negativo
superficie, encima

3 IZKI'koak
criatura
turbio, gris
yo
palabra, promesa
donde
idioma
buey
indica posición
guitar
entero
calabaza
niño

2 IZKI'koak
delgado
bajo, suelo
nosotros
yo
tu, usted
ea, casi
ahí
no
proximo
sufijo de gerundio
subir
alli
vete de ahí

12
irracional

11 IZKI'koak
riqueza


10 IZKI'koak
concebir una idea
telefono

9 IZKI'koak
reloj

6 IZKI'koak
visitar
tijeras
entender

5 IZKI'koak
deudor
negar
cerca
animal

3.a erantzuna



ALKARTASUN BIDEAN

Emen daukazuzan berbak, bizkaieraz eta gipuzkeraz agertzen dira. Lenengo zerrendan dagozanak Bizkai'ko berbak dira, baiña alboko zerrendan Gipuzkoa'n esaten diran moduan agertzen dira. Lenengo zerrendako berba bakoitzari dagokion Gipuzkoako itza topau bear dozu. Erantzuna urrengo zenbakian.

BIZKAIERAZ

- 1.—amama
- 2.—urtarrilla
- 3.—ume
- 4.—lenengo
- 5.—izeko
- 6.—zabaldu
- 7.—ule
- 8.—atzamar
- 9.—dautzut
- 10.—agin

GIPUZKERAZ

- A.— ille
- B.— aur
- D.— dizut
- E.— beatz
- G.— amona
- I.— ortz
- J.— ireki
- K.— lenbiziko
- L.— izeba
- M.— ilbeltza

UTSUNEA ZUZENDU

(ERANTZUNAK)

- 1.—Gure etxea ez da zuena baizen aundia.
- 2.—Zuek niri berebilla apurtu daustazue.
- 3.—Gaur goizean irratia apurtu jat.
- 4.—Zenbat dautzut zor?
- 5.—Ia datorren igandean etorten zaran.
- 6.—Nik ez dot ezer artuko.
- 7.—Ekarri daustazun ardaoa, oso ona da.
- 8.—Nork esan dautzu ori?
- 9.—Une onetan ikasten ari dira.

ARGIMENA

Kalte gafi aundikoa da gaurko urunirudizkin gaste-lar negargaña, noiz arte egongo gara geure urunirudizkin barik?

Goñi

IZKI-NASTEA

D A D X U Z O I P A M L I G A
E M O T S T I D N R E O T S E
K X N J Y O G E P A R B I T R
A T O L E G A Y A R R E A X R
M X S L I L L A K L E S J R E
B A T E G Ñ U J O L A P X B I
P X I Ñ O D M U P R K Y I U D
I D A R R I A G A R R A G U Z A
D Y T A R L L S Y U J D U I R
K Z E N A L G E J T S I R B I
A G T S I B A Ñ A L L E J S

Izki-naste onetan, Euskalerriko bost musikari ospetsuren izenak agertzen dira. Ia topatzen dozuzan, bestelan, urrengo zenbakian erantzuna.

EUSKERAZALEAK

Gure toki-izenetan aberastasun aundia dago. Or agertzen diran izen jator asko gaur galduta daukaguz, baiña ortxe aurkitzen da iztegi egokia, gaur ezin esan ditugun gauza askoren izenak errez eta ederki adierazteko.

* * *

Urkijo, Urkia, Urkiaga, urkitik datorkiguzan abizenak Igorre'n ainbat doguz, bai-ta etxe ta auzunerik be. Urkizu, Urkia, Urkitze...

Asko baiña be geiago dakigun aldi onetan, urkia zer eta zelangoa dan jakiteko baiña, Urkiola'raiño joatea onena litzakigu, urkiaren barririk an diran abadeak ondo dakie-ta.

* * *

Gereta, Mallubi'koen abizena, deitura, non sortua dan ez dakidan arren, Gereta da. Eta Ubiritxaga ta Garakoi tarteko solo-zelaien baztertxu bateko muñoaren ganean basetxe barrizatua dogu, Gereta izenaz ezagutua.

* * *

Guztiok ete dakigu gero, Gereta'k zer esan gura dauskun? Jakinkeririk izango dogu; zer dirauskun jakin gura ba'dogu baiña, jakinkeriak alde batera uzi eta jakintzan murgildu obe litzakegu.

* * *

Etxe, bizitoki, etxauntza latagaz, zur-olaz eta beste zer edo zerez esiturik izatean d-tza etxola, eskorta, esparru, gereta'ren izatea.

Asaba zarrengandik datorkuzan izenak izanik, ikasi-bearra dogu, labe-aurrera joate

LANDAJUELA'tar A'k

Saski-naski

'Selecciones" illerokoa euskeraz

Saski-naski

RAKURGAi atsegifiak euskera on eta errezean

Saski-naski 'k

dakizun euskera apaindu egingo dautzu

Saski-naski 'k

kasten dozun euskerea erreztu egingo dautzu

Saski-naski

irakurri, zabaldu

Saski-naski

EUSKERAZALEAK

Euskerea irakasten dogu, irakasleak sortzeko.

Ikastaroak gure jakintza zabaltzeko.

Algitalpenak, irakurleentzat.

Egutegia etxeetarako.

ZER aldizkaria, bazkideentzat ta adiskideentzat.

Kili-Kili'ri laguntza emoten dautso-gu.

Sariketak sortzen doguz.

Euskalkiak, Bizkaia'n Bizkai'koa, indartzen doguz.

**EUSKERAZALEAK gara
ZATOZ GUGAZ**

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupe en nosotros

Zerre noster gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**